

DOCENTIAZ

IRAKASLANA EBALUATZEKO PROGRAMA

Programaren eskuliburua

BERRIKUNTZAREN, GIZARTKONPROMISOAREN ETA KULTURGINTZAREN ARLOKO
ERREKTOREORDETZA

VICERRECTORADO DE INNOVACIÓN, COMPROMISO SOCIAL
Y ACCIÓN CULTURAL

IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE

Contenido

SARRERA.....	1
DOCENTIAZ PROGRAMA OINARRITZEN DUEN HEZKUNTZA EREDUA	5
DOCENTIAZ PROGRAMAREN AURKEZPENA.....	7
HELBURUAK.....	7
ONDORIOAK	7
APLIKAZIO EREMUA	8
ONARTZEA ETA ZABALTZEA.....	9
PROGRAMAREN EGITURA	11
EBALUATU BEHARREKO DIMENTSIOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK	11
INFORMAZIO ITURRIAK.....	14
IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATEKO BATZORDEA	14
PROZEDURA.....	17
DEIALDIA IREKITZEA.....	17
ESKARIA AURKEZTEKO EPEA ETA ERA	17
ONARTZEA, BAZTERTZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA.....	18
IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEAREN TXOSTENA EGITEA.....	19
BEHIN-BEHINEKO EBALUAZIOAREN EMAITZA.....	19
ALEGAZIOAK EGITEKO PROZEDURA.....	20
ERREKTOREARI GORAKO ERREKURTSOA JARTZEA	20
EMAITZEN ZABALKUNDEA.....	21
PROGRAMA APLIKATZEAREN ONDORIOZ HARTU BEHARREKO ERABAKIAK	23
IRAKASLANAREN EBALUAZIOAREN ONDORIOZKO EKINTZEN JARRAIPENA.....	23
PROGRAMAREN ERREGULAZIO SISTEMA	23

ERANSKINAK

- 1. eranskina:** Ebaluazio eskaeraren eredia: baldintzak egiaztatzea, dokumentazioa aurkeztea, eta autotxostena egitea.
- 2. eranskina:** Ikastegiko Kalitate Batzordearen txosten eredia
- 3. eranskina:** Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan oinarritutako txosten eredia
- 4. eranskina:** Irakaslana Ebaluatzeiko Unibertsitate Batzorderako ebaluazio protokoloa
- 5. eranskina:** Irakaslearen Amaierako txosten eredia
- 6. eranskina:** Alegazioetarako inprimaki eredia
- 7. eranskina:** Ikastegiei igorri beharreko txosten teknikoaren eredia
- 8. eranskina:** Eskuliburuan erabilitako terminoen glosarioa

SARRERA

DOCENTIAZ programak irakaslanaren ebaluatzeko oinarriak finkatu nahi ditu, irakasleen garapen profesionala lortze aldera, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen garapen instituzionalak eta lurralde garapenak markatutako beharrak kontuan hartuta.

Programa honen bidez, irakasle funtzioaren balioa areagotu nahi da hainbat iturritatik (irakasleak, arduradun akademikoak, ikasleak eta erakundea bera) eraikitako irakaskuntzaren ikuspegi integral batetik. Informazio fidagarria eta egiaztatua ematen duen irakaslanaren ebaluazio prozedura bat izateak karrera akademikoaren garapena eta tituluen egiaztapena erraztuko du. DOCENTIAZ programaren emaitzek irakasleen jardunbide egokiak hautemateko balioko dute, eta UPV/EHUK diseinatutako irakasleen prestakuntza, aintzatespen eta berrikuntza programei lotuta egongo dira.

Unibertsitateen Lege Organikoa aldatzen duen 4/2007 Legeak ezarri, eta 1393/2007 Errege Dekretuak eta gerora izandako aldaketek garatu duten egungo lege esparruak irakaslanaren ebaluazioa unibertsitateko irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko estrategiatzat jotzen du. Aipatutako araudian nabarmentzen da unibertsitateak titulua diseinatzerakoan duen autonomia irakaslanaren kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko prozedurak antolatuko dituen egiaztapen eta ziurtapen sistema egokiarekin bateratu behar dela. Ondorioz, Kalitatea Bermatzeko Sistemak barneratu dira, eta ikasketa plan berrien funtsezko atala dira, Europarekin bat etortzeko bete beharreko eskakizunen arabera.

Bestalde, UPV/EHUKo Estatutuek, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartutakoek, 107. artikuluan honako hau adierazten dute:

“irakasleen kalitatea eta irakaskuntzarena bermatzeko xedez, Gobernu Kontseiluak UPV/EHUKo irakasleen irakats lana ebaluatzeko arautegia, programak eta prozedurak onartuko ditu, guztia irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen ordezkari organoen parte-hartzearekin”.

Gainera, irakaslanaren ebaluazioa konfiantza giroan eta zuzentasun irizpideei jarraituz egin behar dela ezartzen du, irakasleek beren ebaluazioen emaitzei alegazioak eta errekurtsioak jartzeko duten eskubidea bermatuz. Emaitza horiek irakasleei, sailei, ikastegiei, irakasleen ordezkariari eta barneko nahiz kanpoko interes taldeei jakinaraziko zaizkie (modu bateratuan edo bereizita).

Aurreko deialdietan DOCENTIAZ programa jasotzen zuen lege esparruari gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretua gehitu behar zaio. Horren bidez, unibertsitateko irakasleek doikuntza berriei egin behar diete aurre beren irakaskuntza jardueran, eta beren ikerketa jarduera areagotu egingo da. Esparru berri horretan, UPV/EHUK uste du irakasleen lanak garrantzi berezia hartu duela eta beharrezkoa dela horretarako ebaluazio tresna egoki bat edukitzea.

Une honetan, UPV/EHUK DOCENTIAZ tresna erabiltzen du irakasleen jarduera ebaluatzeko; izan ere, ANECAren DOCENTIA programan ezarritako baldintzak betetzen ditu, eta UPV/EHUn Gobernu Kontseiluak onartu du.

Orain arte, DOCENTIAZ programaren zortzi deialdi esperimental egin dira, eta, horiei esker, programak beharrezkoak zituen zenbait egokitzapen egin dira. Orain dela gutxi, Unibasqek ziurtatu du DOCENTIAZ programa. Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren webgunean kontsulta daiteke aurreko deialdiei buruzko informazioa.

<https://www.ehu.es/es/web/sed-iez>

Lehen deialdi esperimentala 2009ko abenduaren 22ko bileran onartu zuen UPV/EHUn Gobernu Kontseiluak, eta ezarri ondoren, jarraipen txosten bat egin zen, UNIBASQ eta ANECA agentziek positiboki baloratu zutena. Bi agentziek aintzatetsi zuten UPV/EHUK egindako lana, eta etorkizuneko deialdietarako zenbait gomendio proposatu zituzten. UNIBASQen eta ANECAren gomendioak eta lehen deialdian parte hartu zuten hainbat eragilek emandako informazioa kontuan hartuta, programaren bigarren bertsio bat egin zen, UPV/EHUn IKD hezkuntza ereduari egokitua (Ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa). Ondorengo deialdietan egindako aldaketek helburu dute ebaluazio prozesua automatizatzea eta irakaskuntza-ikaskuntza ereduak dituen premietara egokitzea.

Aurkezten dugun eskuliburu hau DOCENTIAZ programaren deialdi honetan parte hartuko duten irakasleentzat lagungarria izatea espero dugu.

Eskuliburu honen lehen atalean, programak oinarritzat duen hezkuntza eredia azaltzen da; bigarrenean, programaren helburuak, ondorioak, aplikazio esparrua, ezaugarriak eta hedapena azaltzen dira; hirugarrenean, programaren egiturak deskribatzen dira (dimentsioak, irizpideak, informazio iturriak eta ebaluazio batzordea); eta, azkenik, ebaluazio prozeduraren eta ebaluazioaren ondoriozko ekintzen jarraipenaren berri ematen da.

Eskuliburua osatzeko, hainbat dokumentu erantsi dira:

-Eskaera eredia: eskakizunen egiaztapena, dokumentazio ekarpena eta autotxostenaren osaketa.

-Ikastegiko Kalitate Batzordearen txosten eredia, emaitzak irakaslearen ikastegi, maila eta irakasgaiaren testuingurua kontuan hartuta aztertzeke.

-Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestan oinarrituriko txostena egiteko eredia, bertan bilduta: irakats betebeharrari eta ebaluazio aldiaren egindako inkestei buruzko informazioa, irakaslearen txostena eta irakasgaiaren txostena.

-Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzorderako ebaluazio protokoloa.

-Irakaslearen amaierako txosten eredu: bertan jasoko da irakaslanaren ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.

-Alegazioetarako inprimaki eredu.

-Ikastegiari igorri beharreko txosten teknikoaren eredu, bildutako emaitzetanoinarrituko dena.

-Terminoen glosarioa.

DOCENTIAZ PROGRAMA OINARRITZEN DUEN HEZKUNTZA EREDUA

Ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa (IKD) eredia
UPV/EHUko irakaskuntzetako curriculum garapenerako eredia

IKD ereduaren helburua da ikasleak beren ikasketa prozesuaren protagonista eta unibertsitatearen gobernantzaren parte aktibo bihurtzea. Horretarako, metodologia aktiboen bidezko ikasketa sustatzen du, prestakuntzan oinarritutako etengabeko ebaluazioa bermatzen du, ikastegietako harrera programen alde egiten du, ikasleen aurretiko esperientzia aintzatesten du (esperientzia akademikoa, profesionala, bizitzakoa edo kulturala) eta ikasleen arteko mugikortasun eta lankidetzak programak sustatzen ditu.

IKD curriculum garapenak irakaskuntzan inplikaturako eragileen arteko lankidetzak ahalbidetzen duten politika instituzionalak sustatzen ditu, konfiantza eta dinamismo giroan. Hala, irakaskuntza kultura berri horretan, funtsezkoak dira mailako, moduluko, graduako eta graduondoko koordinatzaileak, kalitate batzordeak, eta irakasle taldeen sustapena. Unibertsitateko araudiak ezartzen duenez, ikastegi bakoitzak kalitate batzorde bana du, Kalitatearen Barne Bermerako Sistema (KBBS) kudeatzen duena, eta haren eginkizunetako bat da titulu bakoitzari atxikitako irakasleen kalitatea zaintzea. Horregatik proposatu da, hain zuzen, irakasle bakoitzaren lanaren kalitatearen berri emateko informazio iturri instituzionala Ikastegiko Kalitate Batzordea bera izatea.

DOCENTIAZ PROGRAMAREN AURKEZPENA

Programaren helburuak

- irakasleentzako
- unibertsitaterako

Programaren ondorioak

- irakasleentzako
- unibertsitaterako

Programaren aplikazio esparrua

Zabaltzea eta onartzea

HELBURUAK

Irakasleei dagokienez.

- Goi mailako hezkuntzan kalitatea sustatzen laguntzen duten irakaskuntza jarduerak aitortzea.
- Feedback eraikitzaile bat finkatzea irakaslanerako.
- Irakasleen foro bat bultzatzea, irakaskuntza esperientziak trukatzeko.
- Irakaslanaren ebaluazio zuzen bat eskaintzea.

Unibertsitateari dagokionez

- UPV/EHUKo irakaslanaren kalitatea ebaluatzea.
- Irakaslana aztertzeke eta haren jarraipena egiteko ebidentziak izatea, erakundeak erabakiak hartzeari begira.
- Prestakuntzako eta garapen profesionaleko programak orientatzea.
- Berrikuntzan eta lankidetzan oinarritutako lan kultura sustatzea, kultura hori oinarri izan dadin ibilbide profesionalaren, erakundearen eta lurraldearen garapenerako.

Helburu horiek lortzeko, UPV/EHUK honako egiteko hauek izango ditu:

- Irakaslana ebaluatzeke adostutako irizpideak argitaratzea.
- Unibertsitateko irakaskuntza ebaluatzeke sistema akreditazio prozesuetan ezarritako baldintzetara egokitzea.
- Irakasleak ebaluatzeke eta irakasleei laguntzeke antolaketa egitura garatzea.
- Diru zuzkidura espezifikoko bat konprometitzeke programa honekin lotutako prestakuntza jarduerak bultzatzeko.

ONDORIOAK

DOCENTIAZ programak bi ondorio mota izango ditu:

Irakasleei eragiten dieten ondorioak

- Erkidegoko ordainsari osagarri gehigarrietan, DOCENTIAZ programaren bidezko irakaslanaren ebaluazioan lortutako emaitza *Irakasle* atalari dagokion ebaluazio irizpideetako bat da.
- Ebaluazio "bikaina" lortzen duen irakasleak errektorearen aintzatespena izango du.
- Aldeko ebaluazioa irakaslearen akreditaziorako meritutzat hartzen dute Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (UNIBASQ) eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak (ANECA).
- Aldeko ebaluazioa baldintzetako bat da oinarrizko irakaskuntza eta ikerketari dagozkion jardueren tartea lortzeko, UPV/EHUren Jardun Akademikoaren Planean.
- Aldeko ebaluazioa eskakizun bat da Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak lortzeko HBT Aditua modalitatean (Hezkuntza Berrikuntzarako Talde Adituak), eta meritu bat, berriz, HBT modalitatean (Hezkuntza Berrikuntzarako Taldeak).
- Aldeko ebaluazioa meritutzat hartzen da, unibertsitate irakasleen irakaskuntza prestakuntzarako UIPRE ikastaroetan hautagai izateko
- “Aurkako ebaluazioa” duten irakasleek gonbidapen bat jasoko dute, irakaslana ebaluatzeko arloaren Errektoreordetzaren Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak Prestakuntza Planaren barruan kudeatutako programa edo tailerren batean parte har dezaten. Era berean, banan-banako prestakuntza edo aholkularitza eskatu ahal izango diote aipatutako zerbitzuari.
- DOCENTIAZ programaren bidezko irakaslanaren ebaluazioa irizpide nagusia izango da, irakaskuntza merituak ebaluatzeko (bosturtekoak).

Unibertsitateari eragiten dioten ondorioak

- Docentiaz programaren parte hartze portzentajea 2015-2018 Unibertsitate Planeko adierazleetako bat da.
- Programa erakundearen indarguneetako bat da, 2018-2021 aldirako Plan Estrategikoaren PERTSONEI buruzko IV. ARDATZAREN helburuetako bat garatzeko, hots: "Etapen araberako mugarren inguruan egituratutako eta marratutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa karrera akademikoko eredu baten garapena bultzatzea".
- Docentiaz programaren parte hartze portzentajea EHUndu programako adierazleetako bat da, EHUndu izanik ikastegiek ebaluazioaren arloko eskumena duen errektoreordetzarekin sinatzen duten konpromiso agiri bat, baliabide osagarriak lortzeko.
- Docentiaz programaren parte hartze portzentajea tituluen jarraipenerako adierazleetako bat da, kalitatearen barruko berme sistemaz baliaturik beharrezkoak diren antolakuntza eta kudeaketa aldaketak sartu ahal izateko.

APLIKAZIO EREMUA

DOCENTIAZ programan parte hartzea borondatezkoa da. UPV/EHUko irakasle guztiek parte hartu ahal izango dute bai funtzionarioek bai kontratatuek, lanaldi osoan edo

partzialean egon, eta deialdiaren eskaeraren epean kontratua indarrean izan behar dute. Programak UPV/EHUUn ematen diren ikasketa ofizial guztiei eragiten die (graduak, masterrak eta doktoregoko ikasketak). Programatik kanpo geratzen da goi mailako beste erakunde batzuetan eta UPV/EHUko berezko tituluetan egindako irakaslanak.

Deialdi honetan, bost ikasturtetako merezimenduak ebaluatuko dira; hau da, 2013/14 ikasturtean hasi eta 2017/18 ikasturtera bitartekoak. Ezingo dira aurkeztu zortzigarren deialdi honetara 2013/14-2017/18 ebaluazio aldian ikasturteren bat ebaluatua duten irakasleak.

DOCENTIAZ programan parte hartzeko, karrerako irakasle funtzionarioek, lan kontratadun iraunkorrek edo lan kontratadun egonkorrek (irakasle osoek eta agregatuek) eta lankide iraunkorrek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1- UPV/EHUekin, gutxienez, bost urteko kontratu bidezko harremana eduki izana.
- 2- Ebaluatu beharreko aldian gutxienez ondorengo irakats betebeharra eduki izana:
 - Arduraldi osoko irakasleek 22,5 kreditu.
 - Arduraldi partzialeko irakasleek 15 kreditu.
 - Kargu akademiko batean dihardutelako edo lizentzia dutelako eskolak ematetik salbuetsita dauden irakasleek 15 kreditu.

DOCENTIAZ programan parte hartzeko, aldi baterako kontratua duten irakasleek (atxikiak, lankideak, bitarteko lan kontratadunek, elkartuek) baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1- UPV/EHUekin gutxienez hiru urteko kontratu bidezko harremana eduki izana.
- 2- Ebaluatu beharreko aldian gutxienez 15 kredituko irakats betebeharra eduki izana.

ONARTZEA ETA ZABALTZEA

Gobernu Kontseiluak Docentiaz programa behin onartuta, unibertsitateko kideei helarazten zaie honako bitartekoak erabilia:

- Unibertsitatearen iragarki ohola.
- UPV/EHUren web gune nagusia. Banner bat egongo da programan izena emateko epea irekita dagoen bitartean.
- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren web gunea. Bertan egongo dira jasota DOCENTIAZ programako agiri guztiak

<https://www.ehu.eus/eu/web/sed-iez/docentiaz>

- DOCENTIAZ programaren oinarriak
- DOCENTIAZ programaren eskuliburua



- Ebaluaziorako protokoloa
- Irakasleentzako informatika aplikazioaren erabiltzailearen gida
- Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordearen osaera.
- Berme Batzordearen osaera.
- Informatika aplikazioari esteka

PROGRAMAREN EGITURA

Ebaluatu beharreko dimentsioak eta ebaluzio irizpideak
 Informazio iturriak
 Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea

EBALUATU BEHARREKO DIMENTSIOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Jarraian agertzen den taulan, ebaluatu beharreko dimentsioak, azpidimentsioak eta bakoitzak duen garrantzia azaltzen da. 0 dimentsioa delakoak, irakats betebeharrari dagokionak, elementu zuzentzaile gisa dihardu, programako hiru dimentsioetan lortutako puntuazioari indize bat aplikatuz.

DIMENTSIOA ETA GARRANTZIA (%)	AZPIDIMENTSIOA	GEHIENEO PUNTUAZIOA
0. Irakats betebeharra	(Faktore zuzentzaile gisa dihardu)	
1. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena (% 50)	1.1. Irakasgaien irakaskuntza plangintza	25
	1.2. Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena	25
2. Emaitzak (% 20)	2.1. Arrakasta tasak	10
	2.2. Ikasleen iritziari buruzko inkesta	10
3. irakasleen garapen profesionala (% 30) (*)	3.1. Lidergoa irakaskuntzan	6
	3.2. Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak	10
	3.3. Prestakuntza	12
	3.4. Goi mailako hezkuntzako irakaskuntza berrikuntza	12
	3.5. Hedakuntza	6

(*) 3. dimentsioan, irakasleen garapen profesionalari buruzkoan, azpidimentsioen gehieneko balioen batura 46 puntutara heltzen den arren, gehieneko puntuazioa beti 30 puntutakoa izango da.

0. DIMENTSIOA

IRAKATS BETEBEHARRA

0. dimentsioaren helburua: faktore zuzentzaile gisa jardutea eta irakaskuntzan dauden zailtasun maila ezberdinak kontuan hartzea.

Ebaluazio irizpidea: irakaskuntza jarduera garatzen den testuinguruari lotutako konplexutasuna edo zailtasun maila.

Irakaslanaren zailtasuna neurtzeko bost faktore hartzen dira aintzat: talde bakoitzeko ikasle kopurua, irakaskuntza zer ikastegitan eman den, euskaraz edo ingelesez irakatsi den, emandako irakasgai ezberdinen kopurua, eta irakasle berri ez iraunkorren taldekoa izatea. Emandako eskola kredituetan bost faktore horiek aplikatuz gero, ebaluatu beharreko aldiaren kredituen kopuru egokitua ateratzen da. Kopuru horri honako hauek gehitu behar zaizkio ondoren: irakasleak tutoretzapeko irakasgaiak ematearen truke jasotzen duen kreditu kopurua eta eskuz gordetako irakats betebeharra. Modu horretan lortzen da DOZENTZIAZ irakats betebeharra deritzona. Ondoren, DOCENTIAZ irakats betebeharrak JAPeko irakats betebehar erregularraren gainean duen ehunekoa kalkulatu da.

Lortutako ehunekoa % 100 edo txikiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1ez biderkatuko da.

Lortutako ehunekoa % 100 baino handiagoa eta % 110 edo hortik beherakoa bada, erdiko tartearen pisua lortzeko DOCENTIAZ irakats betebeharra JAPeko irakats betebehar erregularrez zatituko da. Ebaluazioan lortutako puntu kopurua emaitzaren balioaz biderkatuko da, zeina 1 eta 1,1 artekoa izango baita.

Lortutako ehunekoa % 110 baino handiagoa bada, ebaluazioan lortutako puntu kopurua 1,1ez biderkatuko da.

1 DIMENTSIOA

IRASTEKO ETA IRAKASTEKO PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

1. dimentsioaren helburua: Irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzea, bai eta irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin bat datorren ere.

Ebaluazio irizpide orokorrak:

UPV/EHUren eta ikastegiaren eskakizunetara egokitzea: UPV/EHUK eta irakaskuntza ematen den ikastegiak antolaketari, plangintzari, irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapenari eta ikasleen ikasteko prozesuaren bilakaerari buruz ezarritako baldintzei erantzun behar die irakaslanak. Baldintza horiek tituluaren ikasketa planean jasotako prestakuntza helburuekin eta gaitasunekin eta UPV/EHUren helburuekin bat etorri behar dute (IKD eredu).

Barne koherentzia: irakaskuntza plangintzaren osagaiak (gaitasunak, irakasteko eta ikasteko modalitateak, jarduerak eta ebaluazioa) sendotasun esplizitua izan behar dute.

Eraginkortasuna: irakaslanak, irakasleen eskura jarritako baliabideak kontuan hartuz, ikasleek ikasketa planean ezarritako gaitasunak berenganatzea ekarri behar du; azken finean, aurreikusitako emaitzak lortzea.

Irizpide espezifikoak eta 1. dimentsioaren adierazleei dagozkien puntuazioen kalkulua kontsultatuzko, ikusi 4. eranskina: Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzorderako ebaluazio protokoloa.

2 DIMENTSIOA - EMAITZAK

2. dimentsioaren helburua: Prestakuntza helburuei dagozkien emaitzak baloratzea. Horretarako, ikasleen emaitza akademikoak eta irakaskuntza jarduerarekiko gogobetetasun maila aztertuko dira.

Irizpide orokorrak:

Eraginkortasuna: irakaslanak, irakasleen eskura jarritako baliabideak kontuan hartuz, ikasleek ikasketa planean ezarritako gaitasunak berenganatzea ekarri behar du; azken finean, aurreikusitako emaitzak lortzea.

Gogobetetzea: irakaslanak irakaskuntzan diharduten gainerako eragileen aldeko iritzia sortu behar du; batez ere, ikasleena, kideena eta arduradun akademikoena.

Irizpide espezifikoak eta 2. dimentsioaren adierazleen puntuazioak kontsultatzeko, ikusi 4. eranskina: Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzorderako ebaluazio protokoloa.

3 DIMENTSIOA

IRAKASLEEN GARAPEN PROFESIONALA

3. dimentsioaren helburua: kalitatezko irakaskuntza bat lortze aldera, irakaskuntza berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako UPV/EHUko irakasleen orientazio maila baloratzea. Zuzendutako lanak ere hartuko dira kontuan, bai eta gainbegiratutakoak ere.

Irizpide orokorrak:

Lidergoa irakaskuntzan: irakaslanaren kudeaketa, plangintza eta garapena hobetzera bideratutako ekintzak, UPV/EHUren irizpideei jarraituz.

Autonomia bultzatzea: ikaslearen autonomia, pentsaera kritikoa eta gaitasuna bultzatzera bideratutako lanak zuzentzea eta gainbegiratzea.

Irakaskuntzaren berrikuntzarako orientazioa: Irakaslanak jarduerari berari buruzko gogoeta batetik abiatu behar du, irakasleen etengabeko prestakuntza errazteari begira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena hobetzeko helburuarekin.

Hedakuntza: irakaslanaren emaitzak gizarteratzea.

Irizpide espezifikoak eta 3. dimentsioaren adierazleen puntuazioak kontsultatzeko, ikusi 4. eranskina: Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzorderako ebaluazio protokoloa.

INFORMAZIO ITURRIAK

DOCENTIAZ programan informazioa eskuratzeko erabiltzen diren iturriak honako hauek dira:

1.- Irakasle parte hartzaileek autotxosten bat egiten dute (1. eranskina).

2.- Ikastegiko kalitate batzordeak 2. eranskinean jasotako txostena betetzen du.

Ikastegietako kalitate batzordeek frogak erraztuko dituzte, eta ebaluazioan parte hartzen duen irakaslearen lana testuinguruan jarriko dute, ikastegien ezaugarriak oinarri hartuta.

UPV/EHUko Irakaskuntza Ikastegietako Kalitate Batzordearen esparru araudiak (EHAA, 2010eko uztailaren 21ekoa eta EHAA, 2010eko abenduaren 29koa) 5.3 artikuluan honako hau dio: "batzorde bat eratu ahal izango da, irakasleen Irakaskuntza Ebaluatzeko Programaren (DOCENTIAZ) informazio iturri moduan. Aipatu batzordeak unibertsitateko sektoreek Kalitate Batzordean parte hartzeko dituzten irizpideak errespetatu beharko ditu. Nolanahi ere, sailtako edo ikastegiei atxikitako sailen ataletako ordezkariak bertan egon beharko dute nahitaez."

3.- Irakasleak ere informazio iturri bilakatzen dira *Irakasleen irakaslanaz ikasleek duten iritzia buruzko inkestan* oinarrituta sortutako txostenaren bidez (3. eranskina).

Azkenik, iturburutik aparte, UPV/EHUK irakasleen irakaskuntza jarduerari buruz ematen dituen datuak eskaeran jasotzen dira, informazio gehigarri gisa.

IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATEKO BATZORDEA

Irakaslan Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordea espediente bakoitzari buruzko azken ebaluazio iritzia emateko ardura duen organoa da, eta irakaskuntzan ospe handia duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, ikasketetan ibilbide ona izan dutela frogatu duten graduondoko ikasleek eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko bi kidek osatzen dute.

OSAERA

Kide hauek osatuko dute modu iraunkorrean:

- Irakaslana ebaluatzeko eskumena duen erretoreordea edo horrek eskuordetzen duen pertsona. Bera izango da batzordeburua.
- Jakintza arlo askoren ordezkari moduan, irakaskuntzan esperientzia aitortua eta zabala duten (10 urte baino gehiago) 9 irakasle.
- UPV/EHUn ikasi duten 2 ikasle.
- Ospe handiko 2 kanpo-ebaluatzaile.
- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko zuzendaria, edo, zuzendaririk ezean, teknikari bat.

IZENDAPENA

IEUBko kideak Gobernu Kontseiluak berretsiko ditu, irakaslan ebaluatzeko arloan eskumena duen errektoreordearen proposamenari jarraiki. Errektoreak izendatuko ditu 4 urteko epealdi baterako, ikasleen kasuan izan ezik, zeinak urtero izendatuko baitira.

Irakaslan Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideak ezin dio uko egin izendapenari, ezusteko arrazoi batengatik batzordean bere eginkizuna bete ezin duenean izan ezik. Kasu

horretan, ebaluazio gaietan eskumena duen errektoreordeak aztertuko du alegatutako arrazoa, eta bost egun balioduneko epean ebatziko du, izendapenari uko egiteko idatzia jasotzen denetik kontatzen hasita.

Era berean, parte hartzaileek CUED/IEUBko kideak errekusa ditzakete, edo horiek abstenitu daitezke, baldin eta 23. eta 24. artikuluetan (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) aurreikusitako abstentzio edo errekusazio arrazoiren bat ematen bada.

CUED/IEUBko kideak errekusatzeko epea 10 egunekoa izango da, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren webgunean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Baldin eta abstenitu, errekusatu edo CUED/IEUBko kideetako baten jarduna eragozteko arrazoiren bat badago, behar diren neurriak hartuko dira ebaluazio prozesua justizi, gardentasun eta ekitate printzipioen arabera gauzatu dadin, betiere eskatzaileen berdintasuna bermaturik eta haien garapen profesionala eragozten duten oztopoak kendurik.

EGINKIZUNAK

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu *DOCENTIAZ* programari dagokionez:

1. *DOCENTIAZ* programan parte hartzen duten irakasleen espedienteak aztertzea eta baloratzea, ebaluazio protokoloan zehaztutako irizpideak (4. eranskina) oinarri hartuta; behin-behineko ebaluazioan aurkeztutako alegazioen gaineko erabakia hartu, eta irakasleek emandako datuak egiaztatzeko aukera izango dute.
2. Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kide berriei tutoretza ematea, norberaren jakintza arloaren arabera.
3. Berme Batzorderako txostenak egitea.
4. *DOCENTIAZ* programaren etengabeko hobekuntzan lan egitea.
5. *DOCENTIAZ* programako espedienteak ebaluatzeko prestakuntza ikastaroak ematea.

KIDEAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Batzordea eratzerakoan, ahal den heinean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko legerian jasotako irizpideak bete behar dira.

Horrez gain, ahal dela, batzordekideek hizkuntza gaitasuna egiaztatuta izan behar dute UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetan.

Irakasleak aukeratzeko irizpideak:

- Unibertsitatearekiko lotura akademikoa, hamar urtekoa edo gehiagokoa.
- *DOCENTIAZ* programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- Arduraldi osoa.
- Euskaraz irakasteko irakaskuntza gaitasun aitortua, hizkuntza horretan ematen den irakaskuntza ebaluatzen denean.

- Irakasle emerituak eta bisitariak kanpoan geratzen dira.

Ikasleak aukeratzeko irizpideak:

- UPV/EHUn lizentziatu edo graduatu diren eta graduondoko ikasketak egiten ari diren ikasleak.
- DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- Historial akademikoa

IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATE BATZORDEKO KIDE KOPURUA AREAGAOTZEA

Irakaslanaren ebaluazioan eskumena duen errektoreordeak proposatu ahal izango die Gobernu Kontseiluko kideei, haiek berresteko, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideen aldi baterako zabalkuntza, kontuan izanda DOCENTIAZ deialdian parte hatzen dutenen kopurua, eskarien jakintza arloa eta hizkuntza. Errektoreak izendatu eta kargugabetuko ditu.

Batzordea handitu behar denean irakasleak aukeratzeko irizpideak.

Baloratuko da:

- Espedienteak ebaluatzeko antolatutako prestakuntza ikastaroa egin izana.
- DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- Curriculum Vitae laburra.
- Arduraldi osoa.
- Euskaraz irakasteko irakaskuntza gaitasun aitortua, hizkuntza horretan ematen den irakaskuntza ebaluatzen denean.
- Irakasle emerituak eta bisitariak kanpoan geratzen dira.

Batzordea handitu behar denean ikasleak aukeratzeko irizpideak.

Baloratuko da:

Espedienteak ebaluatzeko antolatutako prestakuntza ikastaroa egin izana.

UPV/EHUn lizentziatu edo graduatu diren eta graduondoko ikasketak egiten ari diren ikasleak.

DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.

Historial akademikoa.

EGINKIZUNAK

Irakaslan Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko aldi baterako kideen eginkizunak Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kide egonkorren eginkizunen ataleko 1., 3. eta 4. puntuetan zehaztutakoak izango dira.

PROZEDURA

Deialdiaren irekiera
Eskaerak aurkezteko epea eta era
Onartzea, baztertzea edo atzera egitea
Ikastegiko kalitate batzordearen txostena egitea
Behin behieneko ebaluazioaren emaitzak
Alegazioen prozedura
Errektoreari gorako errekurtsioa
Emitzen zabalkuntza

DEIALDIA IREKITZEA

UPV/EHUK DOCENTIAZ programan norbere borondatez parte hartzeko fase esperimentalaren ZORTZIGARREN deialdia argitaratuko du. UPV/EHUren webgunean, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren barruan sortako DOCENTIAZ atariaren bidez argitaratuko da deialdia, eta, horrez gain:

- Unibertsitatearen iragarki oholean.
- UPV/EHUren web gune nagusian. Banner bat egongo da programan izena emateko epea irekita dagoen bitartean.
- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren webgunean.

ESKARIA AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

Eskariak aurkezteko epea izango da deialdia bertan agertuko dena, zortzigarren deialdia unibertsitateko ohiko bideetatik argitaratzean.
Eskaria bide telematikoz lor daitekeen inprimakia betez bakarrik egin daiteke, Docentiaz programaren aplikazioa erabilia.
Parte hartu nahi duen irakasleak bere LDAPa idatzi behar du aplikazioan, eta aplikazioak berak esango dio deialdiaren 2. oinarrian eta eskuliburu honetako APLIKAZIO EREMUA ETA PROGRAMAREN IZAERA atalean adierazitako baldintzak betetzen dituen ala ez.
Baldintzak betez gero, ebaluaziorako eskariaren datuak aktibatuko dira, eskatzaileak irakasgai bat aukeratu beharko du, eta horren gainean egingo da ebaluazioaren zati bat.

Aukeratutako irakasgaiak gutxieneko baldintza hauek bete behar ditu:
gutxienez bost ikasle izatea matrikulatuta.
gutxienez irakasgaiaren % 30 kreditu eman izana, eta irakaskuntza horrek gutxienez kreditu bat lortzea.

Ikasleen iritziari buruzko inkestaren irakaskuntza egoeraren txostena izatea ez da kontuan hartuko honako hauetan emandako irakaskuntza: doktoregoa; practicuma; karrera, gradu edo master amaierako proiektuak; eta esperientzia gelak eta UPV/EHUn atxikiturik ez dauden ikasgaiak.

Ikasle Gida (ikasleei entregatutako gida) eta ikaskuntza lan bat erantsiko dira, biak hautatutako irakasgaikoak, irakasleak irakasgaia emandako Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntzetako batean (gaztelaniaz edo euskaraz).

Ingelesez ere onartuko dira, salbuespen gisa. Ikasle Gidaren edo/eta ikaskuntza lanaren zati bat aipatutako hizkuntzak ez beste hirugarren batean badaude, zati horren edo zati horien itzulpena sartuko da Ikasle Gidaren edo/eta ikaskuntza lanaren amaierako eranskin gisa, eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak erabaki beharko du, duda kasuan eta arrazoiak behar bezala emanda, itzultzaile adituei itzultzeko eskatuko dien.

Ikasle Gidak, azaldutakoez gainera, irakaslearen identifikazioa jasoko du, eta lotuta egongo da ebaluatu behar den aldi horretako (2013/14-2017/18) hautatutako irakasgaiarekin eta emandako ikasturtearekin.

Nahitaez aurkeztu behar dira aipatutako Ikasle Gida eta ikaskuntza lana izeneko agiriak, adierazitako eskakizunak beterik. Prozeduran exijitzen den gutxieneko bat denez, aipatutakoak aurkeztu ezean, ez da okerrak zuzentzeko aukerarik izango, eta ebaluazio prozesutik kanpo geldituko da irakaslea.

Ebaluatuak izateko baldintzak betetzen dituzten irakasgai guztiak, ikastegien eta planen arabera, kontsultatzea ahalbidetuko du aplikazioak.

Hautatutako irakasgaia aldatzeko aukera emango du, harik eta ebaluaziorako eskaria bidali eta erregistratu arte, eta hortik aurrera ez da onartuko hautatutako irakasgaia aldatzea.

Aurkeztutako agiriak Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntzetako batean idatzita egongo dira. Beste hizkuntza batean onartuko dira, salbuespen gisa, merezimenduak alegatzeko egindako ziurtagiriak. Agiriak PDF formatuan egongo dira, kasu guztietan.

Eskariak aurkezteko aldian behar bezala egiaztatutako merezimenduak bakarrik ebaluatuko dira.

Irakasleak ontzat emango ditu ebaluazio eskariko datuak, eta eskaria UPV/EHUko Erregistro Orokorrean jasota geratuko da, automatikoki, zigilu eta guzti.

Eskatzaileak akatsen bat hautematen badu irakats betebeharrean, harremanetan jarri beharko du bere sailarekin, eta, murrizketa edo lizentziari lotutako akatsa bada, langileen atalarekin. Edonola ere, eskaera betetzen jarraitu ahal izango du; izan ere, datuak, behin zuzenduta, automatikoki agertuko dira aplikazioan.

ONARTZEA, BAZTERTZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA

Behin eskaria betetzeko epea amaituta, egiaztatu egingo da ea eskatzaileak ebaluaziorako nahitaezkoztat eta beharrezkoztat jotako agiri guztiak aurkeztu dituen.

Agiriak egiaztatu ondoren, ebaluaziorako eskariaren egoera zertan den jakinaraziko da; hots, behin-behineko onarpenaren edo behin-behineko baztertzearen berri emango da, eta, behin-behineko baztertzearen kasuan, horretara eraman duen arrazoa azalduko da. Hamar eguneko epea irekiko da, akatsak zuzentzeko.

Dokumentazioa zuzentzeko epea amaituz gero, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak, gutxi gorabehera aste batean, espedientearen behin betiko egoera komunikatuko die eskatzaileei, eta, behin betiko baztertutako kasuetan, horren arrazoiak emango ditu.

Kontuan izanda DOCENTIAZ deialdiaren parte hartze kopurua, adierazitako epeak gutxi gorabeherakoak dira; beraz, aldaketak jasan ditzakete.

IKASTEGIKO KALITATE BATZORDEAREN TXOSTENA EGITEA

Gutxieneko eta nahitaezko baldintzak betetzen dituzten eskariak ebaluatzeko onartuta eta okerrak zuzentzeko epea amaiturik, Ikastegiko Kalitate Batzordeak (2. eranskina) txostena beteko du bide telematikoz 15 eguneko epean.

BEHIN-BEHINEKO EBALUAZIOAREN EMAITZA

Ikastegietako kalitate batzordeek txostenak egin ondoren, errektoreak izendatu eta Gobernu Kontseiluak berretsitako Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak espedienteak bide telematikoz eskuratu ditzake, eta irakasleek, ikastegi bakoitzeko kalitate batzordeak eta ikasleek sortutako informazioa ikus dezake. CUED/IEUBk hiru hilabete izango ditu informazioa aztertu eta ebaluazioa egiteko, hori guztia izaera pertsonaleko datu pertsonalak babesteko printzipioak betez eta, egoki jotzen duenean, agiri gehiago edo azalpenak eskatzeko ahalmena beretzat erreserbatuz.

CUED/IEUBk behin-behineko ebaluazioaren emaitza ezagutaraziko du Docentiaz programa kudeatzeko aplikazioaren bidez, eta emaitza hori ebaluazio prozesuan parte hartzen duen irakasle ebaluatu bakoitzak bakarrik ikus dezake.

Ebaluazioak barne hartzen du dimentsioetako bakoitzaren balorazio kuantitatibo bat, baita irakaslearen irakaslanari buruzko amaierako balorazio kualitatibo bat ere, eta horren barruan aintzatespena merezi duten praktikak azpimarratzen dira, eta hobekuntzarako ekintzak adierazten dira. Irakaslearen amaierako txostenak (5. eranskina) 100 puntuko balioa izango du, gehienez ere, 0 dimentsioaren indizea aplikatzea lortutako puntuazioa alde batera utzita.

Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako ebaluazioan 100 puntutik 50 puntu baino gutxiago lortzen dituen En la evaluación favorable se cuentan tres categorías:

Aldeko ebaluazioan hiru kategoria sartzen dira:

Ebaluazio onargarria: ebaluazio onargarria izango da irakaslearen amaierako txostenean 50 puntu edo gehiago eta 70 puntu baino gutxiago lortzen dituen.

Ebaluazio oso ona: ebaluazio oso ona izango da 70 puntukoa eta hortik gorakoa.

Ebaluazio bikaina: Ebaluazio bikaina izango du 1., 2. zein 3. dimentsioetan aurreikusitako gehienezko puntuazioaren % 90a edo handiagoa lortzen duena.

Aldeko ebaluazioak, edozein kategoriatan, bost ikasturterako balioa izango du, ebaluazioa egindako azken ikasturtetik kontaktzen hasita. Irakasleek beren irakaskuntzaren etengabeko ebaluazioa izan dezaten, irakasleak beren irakaslan ebaluatzeko programara berriro aurkez daitezke, egin zaien azken ebaluaziotik bost ikasturte pasatu direnean.

ALEGAZIOAK EGITEKO PROZEDURA

Behin-behineko ebaluazioaren emaitzei buruzko alegazioak egiteko epea 10 egunekoa izango da. Alegazioak formatu elektronikoa aurkeztuko dira DOCENTIAZ programaren bidez, horretarako diseinatutako formularioa erabilia, eta alegazioekin batera egoki jotzen diren agiriak eta justifikazioak ere aurkeztuko dira, betiere PDF formatuan. Irakaslana Ebaluatzeke Unibertsitateko Batzordeak gutxienez 10 eguneko epea izango du alegazioak aztertu, ebatzi eta azken txostena egiteko.

ERREKTOREARI GORAKO ERREKURTSOA JARTZEA

Alegazioen gaineko erabakiarekin ados egon ezean, gorako errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio errektoreari hilabeteko epean, eta hark halakoak ebazteko sortutako Berme Batzordera bidaliko du. Errektoreak Berme Batzordeko kideak proposatuko ditu, eta Gobernu Kontseiluak berretsiko ditu. Behin-behineko ebaluazioari alegaziorik aurkeztu ez bazaio, ezin izango da gorako errekurtsorik aurkeztu. Berme Batzordeko kideak errektoreak proposatu, eta Gobernu Kontseiluak berretsiko ditu.

Berme Batzordearen osaera:

- Errektorea edo honek eskuordetzen duen pertsona. Bera izango da batzordeburu.
- Ebaluazio gaitan eskumena duen errektoreordea edo honek eskuordetzen duen pertsona.
- Jakintza arlo bakoitzeko irakasle ordezkari bat.
- Aholkularitza Jurid ikoko Zerbitzuaren arduraduna edo honek eskuordetzen duen pertsona.
- Ikasleen ordezkari bat.

Irakasleak aukeratzeko irizpideak:

- Unibertsitatearekiko lotura akademikoa, hamar urtekoa edo gehiagokoa.
- DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- Arduraldi osoa.
- Euskaraz irakasteko irakaskuntza gaitasun aitortua, hizkuntza horretan ematen den irakaskuntza ebaluatzen denean.
- Irakasle emerituak eta bisitariak kanpoan geratzen dira.

Ikasleak aukeratzeko irizpideak:

- UPV/EHU n lizentziatu edo graduatu diren eta graduondoko ikasketak egiten ari diren ikasleak.
- DOCENTIAZ programan ebaluazioak egiten esperientzia izatea.
- Historial akademikoa.

EMAITZEN ZABALKUNDEA


Ezagutza arloen arabera osatutako txostenak eta inplikaturako eragile guztien gogobetetze inkestak SED/IEZren webgunean argitaratuko dira.

Ikastegira zuzendutako txosten teknikoa (7. eranskina) dagokion arduradunari bidaliko zaizkie. Era berean, amaierako puntuazioa emango da, dimentsioetan banatuta. Txosten honek balio instituzional handia du, ikastegi jakin baten irakaskuntza jarduera bere osotasunean baloratzea ahalbidetzen duelako

Irakasleen ebaluazioan eskumena duen errektoreordeak (eta dagozkion zerbitzuak) erabilera konfidentzialeko txosten guztiak jaso, eta, ebaluazio prozesuan lortutako emaitzak kontuan hartuta, erabakiak hartuko ditu.

Azkenean, dagokion deialdiaren UPV/EHUren Irakaslana Ebaluazio Ereduaren Ezarpenari buruzko Txostena igorriko zaio Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Agentziari (UNIBASQ).

Hurrengo irudian, ebaluazio prozedura osoa laburbiltzen da:



PROGRAMA APLIKATZEAREN ONDORIOZ HARTU BEHARREKO ERABAKIAK

Irakaslanaren ebaluazioaren ondoriozko ekintzen jarraipena:

- Irakasleei dagokionez
- Unibertsitateari dagokionez

Programaren errgulazio sistema

IRAKASLANAREN EBALUAZIOAREN ONDORIOZKO EKINTZEN JARRAIPENA

UPV/EHUK laguntza emango du, irakaslanaren ebaluazioan eskumena duen errektoreordetzako zerbitzuen bidez, DOCENTIAZ programaren bidez lortutako emaitzen eta ekintzen jarraipena egiteko. Honako zerbitzu hauek hartuko dute parte zeregin horretan: Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuak (SED/IEZ), Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE/HELAZ) eta Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuak (SCEI/KEIZ).

Irakasleei dagokienez:

Ebaluazio prozesua amaitzean, aurkako ebaluazioa jaso duten irakasleei gonbidapen bat egingo zaie, Prestakuntza Planaren barruan irakaslan hobetzeko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak eskainitako tailer eta/edo programetan parte har dezaten, Irakaslana Ebaluatzeako Unibertsitateko Batzordeak adierazitako hobekuntza arloak indartzeko. Hobekuntza planaren jarraipena batera egingo dute Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak eta Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuak.

Unibertsitateari dagokionez:

Ikastegiek beren jardura autoebaluatzeko eta antolakuntzan eta prestakuntzan egin beharreko aldaketak egiteko erabiliko dute irakaslanaren ebaluazioan eskuratutako informazioa. Aldaketa horiek ikastegiko kudeaketa planean agertuko dira.

Errektorearen Taldeak ardura izango du irakaslanaren kalitatearen alde egiten duten praktikak (banakakoak zein taldean egindakoak) aitortzeko ekintzak zehaztea.

PROGRAMAREN ERREGULAZIO SISTEMA

Irakaslan Ebaluatzeako Zerbitzuak DOCENTIAZ programaren erregulazio sistema bat ezarriko du, hobekuntzarako jardueri antzematea ahalbidetuko duena.

Irakaslan Ebaluatzeako Zerbitzuak biltzen du DOCENTIAZ programaren ebaluazio prozesuan parte hartzen dutenen gogobetetze mailari buruzko informazioa: irakasleak, ikastegietako kalitate batzordeak eta Irakaslana Ebaluatzeako Unibertsitateko Batzordea, modu telematiko eta anonimoan galdetegi batean, "Encuestafácil" plataformaren bitartez. Prozesuan parte hartzen duten guztiei galdetegia bidali egiten zaie modu honetara: irakasleei ebaluazioa jaso ondoren, ikastegietako kalitate batzordeei beren txostenak egin ondoren, eta Irakaslana Ebaluatzeako Unibertsitate Batzordeari ebaluazio prozesua amaitu ondoren. Eskuratutako emaitzen txostenak Irakaslana Ebaluatzeako Zerbitzuaren web orrian argitaratuko dira.

Azkenik, programak fase esperimentalean izandako ezarpenaren segimendu txostena egingo da, oraingo deialditik ateratako emaitzak, hausnarketak eta hobekuntza proposamenak bilduko dituena. Txosten hori ANECA eta UNIBASQ agentziei bidaliko zaie, balora eta egiazta dezaten..

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea